

## 7. ariketa

Ostalaritzako lokaletan arriskuak murrizteko ingurumeneko faktoreen zerrenda aurrean duzula, aukeratu, hurrenkeraren arabera, zein bost faktore diren, zure ustez,

### EDUKIERA HANDIKO LOKALETAN ALKOHOLAREN ETA BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK MURRIZTEKO INGURUMENEN FAKTOREAK

Lokalaren edukiera ez gainditzea eta joan-etorrietarako eta larrialdietarako guneak ez Aireztapen-sistemek, aire girotuak eta berogailuak tenperatura egokia izan ditzatela bermatzea.

Edateko ura doan dagoela eta alkoholik gabeko edari freskagarriak prezio onean daudela ziurtatzea.

Atsedean hartzeko gune lasaiak edukitzea, erosoak eta dantzalekutik urrunduta.

Jatekoa erosteko makina bat izatea edo barran jatekoak erosi ahal izatea.

Segurtasun-sistemak erabiltzea, gorabeherarik eta droga-trafikorik egon ez dadin, eta adingabeen sarrera kontrolatzeko.

Langileen prestakuntza sustatzea, batik bat atezainena eta tabernariena, larrialdi-, borroka-, intoxikazio- eta gaindosi-egoeretan zer egin jakiteko eta prebentzio-jardueretan laguntzeko. Halaber, komeni da lehen sorospenerako zerbitzua izatea eta, diskotekarik handienetan, mediku-zerbitzuak.

Ahal den neurrian, klubera heltzeko autoaz bestelako garraiobideak erraztea.

Komunen eta beste gune batzuen garbitasuna zaintzea, bezeroek labain ez egiteko. Aparkalekua antolatzea eta kontrolatzea.

Larrialdi-, borroka-, intoxikazio- eta gaindosi-egoeretan zer egin jakitea.

Laguntza-protokolo ona eta larrialdietako zerbitzuekin koordinazio ona ezartzea, istripurik edo borrokarik izanez gero, joan-etorria arintzeko.

Lokalean preserbatiboak erosteko makina izatea.

Argiaren eta musikaren intentsitatea aldatzea, lokalaren erabiltzaileen alterazio-maila kontuan hartuta.

Arropazaindegi bat egotea eta prezioaren aldetik eskuragarria eta arrazoizkoa izatea.

Botikina egoera onean izatea eta lokaleko langile guztiek non dagoen jakitea.

Edalontziak batzen dituenaren irudia balioestea.